

IGERILEKU ESTALIAK ERABILTZEKO ARAUAK

ERABILPEN ORDUTEGIA

- Ekainaren 15etik abuztuaren 31era, egunero 10:00etatik 21:00etara.
- Data horretatik aurrera, urte osoko ordutegia: 8:00etatik 22:00etara. Igande eta jai egunetan 8:00etatik 13:30etara.
- Bainu esparrura txano, txinal eta bainujantzia jantzita sartu behar da.
- Dutxa hartzea eta txanoa erabiltzea derrigorrezkoa da. Elkartearen atarian eros daitezke 2,00€ gatik oihalezkoak eta 3,00€ gatik silikonazkoak.
- Igerileku handia igeri egiteko soilik erabiliko da (kaleak eta sorosleak seinalatzen duen maila jarraituz).
- Igerileku ertaina ikastaroak eta igeriketa libre egiteko erabil daiteke.
- Antzinako igerileku estalia: Ikastaroak egiteko soilik erabiliko da.

IGERILEKU TERMALA

- Soilik, 18 urtetik gorakoak erabili dezakete.
- Behin dutxa hartuta eta xaboi edota kremaren arrastorik gabe sartu behar da.
- Gomendatutako denbora: 10 minutu.
- Haurdunaldian ez da gomendagarria.
- Salto eginez sartzea edota jokuak, debekaturik daude.
- Ondoan dauden pertsonak zipriztinak ez jasotzeko, txorrotatik urruntzea gomendatzen da, uraren eragin zuzena ez delako onuragarria.
- Sorosleak ematen dituen aginduak bete eta kasu egin behar zaio.